

8.1 UDALAREN HAUR ESKOLETARA JOATEAGATIK ETA HEZKUNTZA ZERBITZUAREN OPORRETAKO PROGRAMENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA**KONTZEPTUA****1. artikulua**

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 2.1.h artikuluan eta, horren haritik, 43.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Udalaren haur eskoletara joateagatik eta Hezkuntza Zerbitzuaren oporretako programengatik ordaindu beharreko prezio publikoak", zein ordenantza honetan arautzen baitira.

BEHARTUAK**2. artikulua**

Udalaren haur eskoletan matrikulatzen direnak eta Hezkuntza Zerbitzuak kudeatzen dituen oporretako programetan parte hartzen dutenak egongo dira behartuta ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzera.

ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA**3. artikulua****I. UDALAREN HAUR ESKOLETARA JOATEA-**

Udal haur eskoletako asistentzia eta jantoki zerbitzuez baliatzeko prezio publikoak, 2020-2021 ikasturtean, hauek izango dira:

1 ASISTENTZIA: 8:00etatik 13:00etara.

2018an jaiotako haurrak0,00 euro hilean, bakoitzeko.
(eskola-aldietan aplikatzeko tarifa)

2 ASISTENTZIA: 08:00etatik 16:00etara (jantokia eta siesta barne).

2018an jaiotako haurrak84,00 euro hilean, bakoitzeko.
(eskola-aldietan aplikatzeko tarifa)

3 ASISTENTZIA: 8:00etatik 13:00etara.

2019 edo 2020an jaiotako haurrak168,20 euro hilean, bakoitzeko.

4 ASISTENTZIA: 08:00etatik 16:00etara (jantokia eta siesta barne).

2019an jaiotako haurrak252,20 euro hilean, bakoitzeko.

5 ASISTENTZIA: 8:00etatik 16:00etara.

2020an jaiotako haurrak218,60 euro hilean, bakoitzeko.

2.- Gizarte- eta ekonomia-ahuldadean dauden familietako haurrak, 2018, 2019 edo 2020an jaiotakoak, dagokien tasa —egokitze-aldiko kuota barne— ordaintzetik salbuetsita geratuko dira —Udalaren haur eskolak zabaltzen diren aldi osorako— Udalaren gizarte-zerbitzuek horretarako proposamen arrazoitua egin badute, hautatzen duten asistentzia-mota edozein izanik ere.

3.- Urtean 18.000,00 eurotik beherako familia-errenta duten familietako haurrak, 2018, 2019 edo 2020an jaiotakoak, dagokien tasa —egokitze-aldiko kuota barne— ordaintzetik salbuetsita geratuko dira —Udalaren haur eskolak zabaltzen diren aldi osorako— eta hautatzen duten asistentzia-ordutegia edozein izanik ere. Neurri horretatik salbuetsita egongo da 2018 eta 2019an jaiotako haurrentzako jantoki-zerbitzua, 08:00etatik 16:00etara arteko ordutegia hautatzen delarik; 33,60 euro ordaindu beharko dira jantoki-zerbitzuagatik, eta asistentzia doakoa izango da ordutegi horretan.

APLIKAZIO-ARAUAK

- 1.** Ordainketa guztiak banketxearen bidez helbideratuko dira.
- 2.** Haurra eskolan hasten den lehen hilabeteko kuota —egokitze aldia— alde aurretik kobratuko da, lekua onartzen den unean, eta 84,00 eurokoa izango da, 2018an jaiotako haurrentzat izan ezik, horiei ez baitzaie kontzeptu horregatik kobratuko. Gainera, hilabete hori igaro ondoren, 42,00 euro kobratuko zaizkie 2 eta 4 asistentziak dituzten haurrei.

Haurrak eskolan hasten diren lehen hilabeteko kuotari dagokionez —alde aurretik kobratzen baita, matrikula egitean—, zirkunstantziaren batengatik familiak erabakitzen badu azkenik lekua ez baliatzea eta eskola-jarduera hasi baino lehenago jakinarazten badu, ehuneko 85 itzuliko zaio, bankuko kontuaren bitartez, eta gainerako ehuneko 15a, berriz, kudeaketa-gastu gisa atxikiko. Zirkunstantzia hori ez bada eskola-jarduera hasi baino lehenago jakinarazten, ez da kuota hori itzuliko, eta galdu egingo da.

Gainerako hilabeteetan hila burutzean kobratuko da asistentzia-kuota, eta hilabete bati dagokiona izango da, edozein delarik ere haurra eskolara joaten hasten den eguna, bertan egiten duen egonaldia, eskola irekita dagoen egunen kopurua edo funtzionamendu mota.
- 3.** Eskolarik ez dagoen Eguberrietako eta Pazko Asteko aldietan, asistentzia-tarifa bereziak ezartzen dira 2018. urtean jaiotako haurrentzat: egun kopuruaren araberrako zati proportzionala, 3. asistentzia-tarifa oinarritzat hartuta. Era berean, udaldirako tarifa bereziak izango dituzte —3. eta 4. asistentzia—, eskatutako ordutegiaren arabera.
- 4.** Hilabete baino gehiago eta gehienez ere bi hilabete ematen badu haurrak, pisuzko arrazoiak direla medio, eskolara joan gabe — eta hamar egun balioduneko epean Udaleko Hezkuntza Zerbitzuari horien berri idatziz azaltzen bazaio—, dena delako zerbitzuaren kuota ehuneko 50 murriztuko da. Aplikatuko den kuota ez da proportzionala izango, absentzia-egunen arabera, baizik eta hileko ordainketaren izaera izango du. Horregatik, ehuneko 50eko murrizketa aplikatuko zaio hileko kuotari, hilabete batean edo bitan, kasuan kasu. Neurri bera aplikatuko da mediku arrazoiak edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk direla eta 08:00etatik 16:00etara arte matrikulatuta dauden familiek 13:00etatik 16:00etara arteko tartean —hau da, jantoki-zerbitzua eskaintzen den ordutegian— erreserba egin beharra dutenean. Horrelakoetan, erreserba aldian 08:00etatik 16:00etara arteko ordutegiari dagokion kuota ordainduko dute, eta 13:00etatik 16:00etara arteko tarteari — jantoki-zerbitzua barne— dagokion kuotaren ehuneko 50
- 5.** Bi hilabetez ordainketa egiten ez bada, besterik gabe emango zaio baja haurrari haur eskolan.
- 6.** Prezio publiko horiek adierazitako epeetan ordaintzen ez badira, premia bidezko prozedurari ekingo zaio, zordunaren ondarearen kontra, eta "premia bidezko gehikuntza" kontzeptuagatik ehuneko 20 erantsiko.
- 7.** Asistentzia-tarifak kasuan-kasuan finkatuko dira, familiek egindako eskabideak aintzat hartuta.

8. Seme-alaba bat baino gehiago duten familien kasuan, ondoko ehunekoetan murriztuko dira hileko tarifak:

- a) Zein haurrentzat eskatzen den lekua eskolan, baldin eta bi anai-arreba baditu, kuotaren ehuneko 25eko murrizketa aplikatuko zaio.
- b) Hiru anai-arreba baditu, kuotaren ehuneko 33ko murrizketa.
- c) Lau anai-arreba baditu, kuotaren ehuneko 44ko murrizketa.
- d) Bost anai-arreba baditu, zati proportzionala murriztuko zaio..

9. Zenbait ume batera erditutako, adoptatutako edo behin betiko harreran edo adopzioaren aurrekoan haurrak hartutako familien kasuan, hileko kuota bakarra ordainduko da, baita udalaren haur-eskoletan bi seme-alaba edo gehiago matrikulatuta dituzten familien kasuan, bikiak, hirukiak eta abar ez izan arren. Neurri horretatik salbuetsita egongo da 2018 eta 2019an jaiotako haurrentzako jantoki-zerbitzua, 08:00etatik 16:00etara arteko ordutegia hautatzen delarik; 33,60 euro ordaindu beharko dira jantoki-zerbitzuagatik, eta asistentzia doakoa izango da ordutegi horretan.

Matrikulatutako seme edo alaba bakoitzarengatik ordaindu beharreko kuotak ezberdinak badira, aukeratutako ordutegiak eta haien adinak direla kausa, familiak kuotarik handiena ordainduko du, eta bigarren matrikula eta gainerakoak doakoak izango dira

8. atalean aurreikusitako kuota-murrizketa aplikatzerakoan, biki, hiruki eta antzeko multzoetako kide ez diren umeak baino ez dira joko ahizpa/arrebatzat edo neba/anaiatzat.

10. Interesdunarentzat onuragarrien den irizpidea baliatuko da kasu horietan guztietan (8. eta 9. puntuak).

11. Asistentzia-zerbitzua noiz edo noiz 16:00ak arte baliatzen dutenek tarifari ehuneko 10 gehitu ondoren hura hainbanatzetik ateratzen dena ordaindu beharko dute.

II. HEZKUNTZA ZERBITZUAREN OPORRETAKO PROGRAMA.

Hezkuntza Zerbitzuak udaldirako antolatu ohi dituen udako programetan parte hartzeko ordaindu beharreko prezio publikoak honako hauek izango dira 2020an: Hamar egunez irauten duten opor-jarduerei aplikatuko zaizkie prezio horiek. Jardueraren egun-kopurua beste bat izanez gero, prezio publiko proportzionalak aplikatuko dira.

- "Jolas txokoak, jantokirik gabe" (Haur Hezkuntzako 2. zikloa): 55,40 euro
- "Jolas txokoak, jantokiarekin" (Haur Hezkuntzako 2. zikloa): 90,90 euro
- "Udaleku irekiak" (Lehen Hezkuntzako 1.etik 3.era): 101,40 euro
- "Ingurumen udalekuak" (Lehen Hezkuntzako 4.etik 6.era): 122,90 euro

APLIKAZIO-ARAUAK

1. Izena ematean ordaindu beharko da prezio publikoa.

2. Beka-sistema bat ezartzen da. Udako programaren aurreko azken ikasturtean, Eusko Jaurlaritzan hezkuntzaren alorreko eskumena duen sailaren beka eskuratu dutenek baliatu ahal izango dute. Prezio publikoaren ehuneko 50ekoa izango da beka hori.

3. Prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita geratuko dira gizarte eta ekonomia aihuldade bereziko egoeran daudenak, Udalaren gizarte-zerbitzuen proposamen arrazoitua dela medio.

4. Izena eman duen norbaitek azkenena jarduera burutzerik ez badu, hura hasi aurretik jakinarazi beharko da zirkunstantzia hori, hala egin ezean ez galdu egingo baitu ordaindutako diru-kopurua. Itzultzen bada, bankuko kontuan sartuz egingo da. Diru-kopuruaren ehuneko 85 itzuliko da, eta gainerako ehuneko 15a, berriz, kudeaketa-gastu gisa atxikiko.

5. Gutxieneko izen-emate kopurua lortzen ez duten jarduerak bertan behera geldi daitezke. Jarduerak arrazoi horregatik nahiz izena eman dutenek zerikusirik ez duten eta gerora egokitu diren zirkunstantziengatik bertan behera geratzen direlarik ere, ehuneko 100 itzuliko da, bankuko kontuan sartuz.

Azken xedapena

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.